Ordiziako Udala

2023SORD0006

**AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA: BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETA**

Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan ezartzen duenez, erregelamendu proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak ukitu ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek euren ekarpenak egin ditzaten. Hori horrela, egun **Ordiziako Udalean indarrean dagoen bide publikoen terrazak eta mahaitxoak jartzeko Udal Ordenantza arautzailea aldatzeko prozeduran, aurretiazko kontsulta publiko hau egiten da.**

Modu honetan, eta arauzko proiektua egin aurretik, ukituak izan daitezkeen herritarrei eta antolakunderik ordezkagarrienei dei egiten zaie, aldatu nahi den arau honen gain euren ekarpenak egin ditzaten.

Ekarpenak, alegazioak edota iradokizunak egin daitezke iragarkia udalaren web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean.

Hori horrela, ekarpenak hurrengo helbide elektronikoan egin daitezke: idazkaritza@ordizia.eus.

***CONSULTA PÚBLICA PREVIA: MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULDORA DE LA INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE TERRAZAS Y VELADORES***

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración de los proyectos de reglamentos, debe substanciarse una consulta pública digital para recabar la opinión de los sujetos y de las asociaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma, por lo que en su cumplimiento, se lleva a cabo la consulta previa en el **procedimiento para la modificación de la Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores.**

De este modo, y antes de la elaboración del proyecto normativo, se invita a la ciudadanía y a las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la norma objeto de modificación a expresar sus opiniones y hacer aportaciones sobre la necesidad de esta norma.

Pueden hacerse aportaciones, alegaciones y/o sugerencias, durante un plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente al de publicación del anuncio en la página web municipal.

A tal efecto podrán remitirse las contribuciones a la siguiente dirección de correo electrónico: idazkaritza@ordizia.eus.

Jarraian, arauketa honekin konpondu nahi diren arazoak, berau onartzeko beharra eta egokitasuna, nahiz helburuak zein diren zehaztuko dira.

A continuación, se describen los problemas que se pretender resolver con esta regulación, las razones de la necesidad y oportunidad de su aprobación así como los objetivos que persigue.

**ARAUDIA ALDATZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

***NECESIDAD Y OPORTUNIDAD LA MODIFICACIÓN DE LA NORMA***

Ordenantza eguneratu nahi da, hura zaharkituta gelditu baita egungo beharrizanei erantzuteko.

*Se pretende actualizar la ordenanza, que ha quedado obsoleta para atender las necesidades actuales.*

**KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK ETA HELBURUA**

***PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR Y OBJETIVO***

Konpondu nahi den arazo nagusia egun zaharkituta gelditu den ordenantza eguneratzea da, gizarteko eragile ezberdinen eskaerei erantzun ahal izateko.

*El principal problema que se pretende solucionar es la actualización de una ordenanza que hoy ha quedado obsoleta para poder dar respuesta a las demandas de los diferentes agentes de la sociedad.*

Helburua egungo beharrizanak modu egokian asetuko dituen ordenantza funtzional bat izatea da, herritarrei ahalik eta segurtasun juridikorik handiena eskaintzeko.

*El objetivo es contar con una ordenanza funcional que satisfaga adecuadamente las necesidades actuales y ofrezca la máxima seguridad jurídica a los ciudadanos.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzailea** Firmante | **Administrazio Orokorreko Teknikaria** Irati Labaca Garmendia |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAFKMKQ.BUph |